



Zure zain

Askotan imajinatu dut zure jaiotza eta makina bat bertsio irudikatu. Ez dakit lasterka helduko zaren edo astiro-astiro egingo ote duzun pasabidean aurrera; ez dakit ilunpetan zabalduko ote dituzun begiak lehenengoz edo kirofanoko argiek itsutuko zaituzten; ez dakit osasuntsu egingo duzun negar edo minezko malakoak isuriko ditugun guk guztiok. Badakit, ordea, ama prest dagoela itsasoratzeke. Aita irrikan dagoela zu besoetan baldar bezain maitekor jasotzeko. Eta ahizpak ikasi duela zure izena idazten.

Ulertzen dut irteteko presa askorik ez izatea. Umetokia baino toki hoberik ez da umeentzat, nik uste. Hor barruan dena dago zure neurrira egina, baina hemen kanpoan apur bat konplikaturik zaitzu existentzia. Hemen kanpoan mundua bere horretan *ttikientzat* egokia ez dela sinestuta gaude eta asmakizun dezente ironikoak sortu ditugu. Begira zenbateraino den bitxia kontua: aurreko batean entzun nuen ezagun baten ezkontza *child-friendly* izango dela haurrak zaintzeko zerbitzua jarriko dutelako. Alegia, joateko lasai umeekin ezezagun bat arduraturik dela festan molesta ez dezaten.

Ia ez dugu erremediorik. Segituan ohartuko zara etorkizunean izango zaren heldu horren aurrerapen gisa irakurriko ditugula zure pauso guztiak, ezinbestean; kostako zaigu ulertzea jada izaki oso bazarela.

Baina, aizu, ez zaitut gogogabetu nahi,

Sekulako oparia izango da zure munduratzean parte hartzea. Aurrenekoz begiratuko diozu amari begietara. Berak kruasan egin berriaren usaina duzula antzemango du

badira oasiak tokika eta tarteka. Gainera, pentsatzen dut hain ezaguna zaizun amaren ahotsa azalaren bestaldetik nola entzuten den jakin nahiko duzula. Berak dio sabel barruan gustura zaudela eta uste duela oraindik denboratxo batean iluntzeak gozaraziko dizkiozula zure dantzaldiekin. Gutxi geratzen da, dena den. Egun hauetakoren batean hainbeste deseatzin dudana deia jasoko dut eta zure ongietorrian laguntzera abiatuko naiz.

Sekulako oparia izango da zure munduratzean parte hartzea. Aurrenekoz begiratuko diozu amari begietara. Berak kruasan egin berriaren usaina duzula antzemango du. Epel-epel zaudela jarriko zaitu bular gainean. Ahoskatuko duen lehen hitz horrekin deskubrituko duzu nolakoa den letren hotsa azalaren alde honetan. Eta amak dena ulertuko du une batez. Gero ahaztu egingo du



ANA MENDIA
EMAGINA

dena zer den. Iheskorra da instant hori.

Batek daki, akaso letra hauek argitaratzen direnerako zure kabuz ariko zara arnasten. Ezingo zaituztet ama eta zu aldi berean besarkatu orain artean bezala. Ba al dakizu zer? Izugarri gozaten ditut besarkada horiek azkenaldian. Neguko jertse lodiena jantzita ere ama erabat biluzik antzematen baitut. Zabal. Oso. Iragazkor. Zirrara ageri-agerian. Adituek *gardentasun psikiko* esaten diote haurdunaldiak aurrera egin ahala emakumeek bizi ohi duten sentiberatasun olatu horri. Ahaztutako oroitzapenen atea zabaltzen omen da eta askok beren jatorririra egiten dute buelta. Eskerrak zuek tripa nahasketa horren alde egiten duzuen, ze hemen kanpoan badirudi emozioei beti bare eustea bertute dela. Nolanahi ere, egon lasai: ama garden-garden dago. Bihotza bistan zure esperoan.

Aitona zain duzu baserrian baba handiak bildu eta tomateak presaka landatzen (apur bat berandu dabil aurten). Gainontzeko guztiak ere pronto gaituzu. Prest sentitzen zarenean ekin bideari beldurrik gabe, beraz. Promes egiten dizut ahaleginduko garela zuretzako ume-toki izaten. Eskuzabal jasoko zaitugu. Datorrena datorrela.

Laster arte,
Izeba Ana.

P.D. Zure ahizpak aurrekoan esan zidan hain bere sentitzen duen amaren bularra utziko dizula; berak hartu zuela nahikoa esne eta orain ez duela behar. ●